

Elur gainean jokatzaren diren lasterketek katigatuta dauzkate Uxue Murolas, Naiara Irigoien eta Ainara Uribarri mendi korrikalariak. Hirurak oso ondo aritu ziren Belaguako lasterketan, baina Euskal Herrian apenas duten elurretako probarik; ondorioz, kanpora joan behar izaten dute maiz, lehiatu ahal izateko.

Elurretan ere korrika

Unai Ugartemendia

Ez dira hainbeste urte pasatu Euskal Herrian elurretako lehen mendi lasterketa jokatu zenetik. 2017an izan zen, eta Larra-Belaguako (Nafarroa) iraupen eskoliko estazioan egin zen. Elur gainean igarotzeko egun guztiko egitarauaren azken proba izan zen kranpoi txikiaren korrika egitearena. Geroztik, urtero jarri izan da jokoan lasterketa, eta urtetik urtera jarraitzaile gehiago izaten ari da. Aurtengoa ere ia 150 korrikalari elkartu ziren.

Mendian esperientzia handia du Uxue Murolasek (Iruñea, 1970). Lehenik, mendira joaten hasi zen lagun batzuekin, eta, haiek ere mendira korrika egitera firteten zirela ikusi zuenean, bera ere probatzera animatu zen. Baina ordura arteko bidea ez da erraza izan. «Eskoliosia daukat. Garaiak asko aldatu dira, baina txikia nintzenezan kortse ortopediko bat jarri zidaten. 18 urte bete arte eraman behar izan nuen, eta, medikuak aginduta, eskolan soinketa egiten ere ez zidaten uzten. Mendian ibiltzea eta korrika hastea eskutik joan ziren, ondoren». Geroztik, mendiko jarduerak ka-teatu zuten. Gaur egun, ohikoa da mendi lasterketetan lehiatzen ikustea, eta Dhaulagirin ere (Nepal, Himalaia, 8.167 metro) egon zen 2019an, Sergi Mingote zena-rekin. Apirilean, berriz, Lhotse mendira (Nepal, Himalaia, 8.516 metro) joateko espedizio batean hartuko du parte.

Naiara Irigoien ere (Iruñea, 1995) ez da hasi berria mendian korrika. Betidanik izan da kirolaria, eta urte askoan igerilekuan pasatu ditu ordu gehienak. Behin unibertsitatean hasita, eta libre zeukan denbora ahalik eta ondoren aprobetxatzeko aitzakiarekin, mendian korrika hasi zen. «Korrika irteak deskonektatzeko balio zidan, eta libre sentitzen nintzen». Azken urteetan mendi lasterketetan hartu du parte, eta urtarilaren 15ean nagusitasunez gailendu zen Belaguan (Nafarroa) jokaturako Elur Gaineko Espainiako Txapelketan. Irigoienek argi dauka. «Gaur egun, mendi lasterketetan gozatzen dut gehien».


Ainara Uribarri (Oñati, Gipuzkoa, 1997) da hiruetan gazteena,



Esperientzia berri bat bizitzera joan nintzen, eta bi helbururekin: korrika gustura egitea, eta selekzioan aritzea»

Naiara Irigoien
Mendi korrikalaria

eta mendian korrika denbora gutxi daramana. Halere, azken bi edo hiru urteetan lortutako emaitzak kontuan hartuta, etorkizun handiena duten mendi korrikalarien zerrendan jarri dute askok eta askok. «Lau urte inguru izango dira mendian korrika egiten hasi nintzela. Lehenbizi, errepidetako lasterketak egiten nituen, eta ondoren hasi nintzen mendia eta errepidetara zuzartzen. 2019an hasi nintzen mendiko lasterkete-



Naiara Irigoien, elurretan lasterka. Unibertsitatea amaituta hasi zen mendian korrika. RAMON FERRER

tan lehiatzen». Korrika egiten hasi zen arte, futbolekin egin zuten urte gehienak Uribarriekin. Oñatiko, Arrasateko eta Legazpi-ko taldeetan ibili zen urte askotan. Geroztik, ez ditu erantzi korrikako oinetakoak. Aurtengo denboraldian, Brooks etxearrekin lehiatuko da mendi lasterketetan.

Baina, mendiko lasterketez gain, orain gutxi hiru korrikalariak batu dituena elur gaineko lasterketa bat izan da. Belaguan izan zen, Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatuta zuten Espainiako txapelketan. Urtean zehar ez dira ohikoak elur gaineko lasterketak, eta, Euskal Herrian esaterako, bakarra jokatzaren da, lehen aipaturako Larra-Belaguakoa. Uribarriekin bigarren urtea zuen lasterketan. «Iaz, Espainiako Kopako proba izan zen, eta lasterketa hasi baino bost minutu lehenago arte ez nituen inoiz kranpoi txikiak jarri. Halere, espero ez nuen emaitza lortu nuen: bigarren sailkatu nintzen». Murolasek ere iaz jarri zi-

tuen lehenbizikoz elur gainean korrika egiteko kranpoi txikiak. Ordura arte mendi lasterketa askotan parte hartutakoa zen arren, inoiz ez zuen elur gainean lasterketarik jokatu. «Iaz, Nafarroako Mendi Lasterketako Selektioetik deitu ninduten Sierra Nevadako



Hankak oso nekatuta bertaratu nintzen, baina ez naiz kexatzen. Hurrengorako badakit atsedean handiagoa hartu behar dudala»

Uxue Murolas
Mendi korrikalaria

Elur Gaineko Espainiako Txapelketan parte hartzeko. Ordura arte zerbait ibilia nintzen arren, inoiz ez nuen lasterketarik jokatu». Baina kasurik bitxiarena Irigoienena izan da. Aurten egin du estreinako elur gaineko lasterketa batean, eta jokaturako lehen proban Espainiako txapelketan izatea lortu du. «Egia esan, aurtengo lasterketa nire lehen esperientzia izan zen elurretan kranpoiekin korrika. Lasterketa hasi baino egun ba-

tzuk lehenago, eguna erraketekin pasatzera joan nintzen, eta kranpoiak kilometro gutxi batzuetan probatu nituen, lasterketara lasaia joateko». Bete-betean asmatu zuen, eta ez du berehalakoa ahaztuko Belaguako txapelketa. Korrika gustura aritzeaz gain, bertako paisaiekin gozatzeko aukera izan zuen. «Lasterketa zoragarria izan zen. Mendietan eguzki gorria ikustea eta Belaguako paisaia zurietan ilargi bete sartzeko ikustea ederra izan zen. Askok gozatu nuen ibilbideaz eta jendearen animoez». Espainiako txapelketan lortutako garaipenak aukera emango dio otsaileko lehen asteburuan Sierra Nevada jokaturako den Munduko Txapelketan parte hartzeko. Proba berean, Uribarriekin ere txapelketa bikaina osatu zuen, emakumeen sailkapenean bosgarren amaitu eta gero. Murolas, berriz, 18. sailkatu zen.


pelketan lortutako garaipenak aukera emango dio otsaileko lehen asteburuan Sierra Nevada jokaturako den Munduko Txapelketan parte hartzeko. Proba berean, Uribarriekin ere txapelketa bikaina osatu zuen, emakumeen sailkapenean bosgarren amaitu eta gero. Murolas, berriz, 18. sailkatu zen.

Elurraren zailtasunak

Uribarri oso baldintza ezberdine-


Elur gaineko lasterketak amaituta, Lhotsera doan espedizio batean hartuko du parte Uxue Muroiasek.

RAMON FERRER



Azken urteetako emaitzak kontuan hartuta, etorkizun handiko korrikaria da askoren ustez Ainaara Uribarri.

RAMON FERRER



tan lehiatu da orain arte jokaturako bi lasterketetan. Iazkoan korrika egiteko izan zituen zailtasunak ederki gogoratzen ditu oraindik ere. «Korrika ezin egin izanaren sentsazioa izan nuen. Ez nekien zer zen elurretan korrika egitea, eta krosaren antzeko zer-bait izatea espero nuen. Azkarra izango zela uste nuen, baina erabat alderantzizkoa izan zen. Elurraren baldintzak ez ziren onenak izan, eta belaunetara ino barneratzen ginen. Oso lasterketa gogorra izan zen!». Aurten, aldiz, elurra oso ezberdin aurkitu zutela aitortu du. Eguraldi bikainaz eta hotzaz gain, elurraren gogortasuna izan zen albiste nagusia Larra-Belaguako lasterketan. Kranpoiak elurretan itsasteko ere zailtasunak izan zituzten arren, korrika egiteko gauzak erraztu zizkieten parte hartzaileei, nahiz eta azken unean izandako ibilbide aldaketak zalantzak sortu zizkien korrikalariari. «Bi egun lehenago abisatu ziguten lasterketak 11 kilometro izan beharrean hamasei izango zituela. Eskerrak elur baldintzak onak izan zirel!».



Aurrena errepideko lasterketak egiten nituen, eta gero hasi nintzen mendian. Lau urte izango dira»

Ainaara Uribarri
Mendi korrikalaria

da horrelakoetan buruhauste nagusi korrikalariarentzat. «Duela hilabete pare bat baino ez zidaten idatzi, lasterketa honetan Nafarroako selekzioarekin parte hartzeko. Hasieran, erokeria zela pentsatu nuen, ez bainintzen inoiz elurretan ibili!». aitortu du Irigoienek. Baina zalantzak uxatu zituen lasterka hasi bezain laster. «Esperientzia berri bat bizitzeko asmoz joan nintzen, eta bi helburu neramatzan: korrika gustura

ibiltzea, eta aldi berean selekzioarekin parte hartzea. Biak beten nintzen».

Esperientzia handia pilatua den arren mendiko lasterketetan, Muroiasek berak ere zalantzak izan zituen lasterketari begira. Teknika, indarra eta sasoiaren egoitea eskatzen duen diziplina bat da elur gainean korrika aritzea. «Hankak oso nekatuta bertaratu nintzen, baina ez naiz kexatzen. Hurrengorako badakit atsedean handiagoa hartu behar dudala denbora hobetu nahi badut». Lasterketan zehar asko sufritu

zuela esan arren, esperientzia bikaina izan zela ere argitu du. Baina arantza txiki bat utzi zion Espainiako Txapelketak. «Asko gozatu nuen oro har; lasterketaz, selekzioa kideez, giroaz eta izan genuen ilunabar politaz. Dena borobiltzeko, Maria Ordoñez gurekin egotea besterik ez zitzaidan faltatu». COVID-19agatik ez zen han izan. Uribarri oso oroitzapen polita eraman zuen Belaguako lasterketatik. «Niri lasterketa

azkarrak gustatzen zaizkit, eta hau oso azkarra izan zen».

Urtarrila eta otsaila izaten dira elur gaineko lasterketen hilabeterik oparoenak, eta Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioak ere ordurako prestatzen ditu Espainiako Kopa eta Txapelketa. Azken urteetan bezala, aurtengo egutegian ere lau proba nabarmenduko dira, Espainiako Txapelketaz harago. Urtarrilerako, bi proba programatu zituen federazioak, artean aipatutako Larra-Belaguakoa, eta asteburuan jokatutako den beste bat, Leitarigosekoa (Leon, Espainia). Otsailerako ere beste bi lasterketa aurreikusten ditu; otsailaren 12an Alto Campoko (Kantabria, Espainia) eski estazioan jokatutako dena, eta otsailaren 19an Espainiako Kopari amaiera emango diona, Vinuesa (Soria, Espainia).

Hiru korrikalariak oso asmo ezberdinak dituzte hurrengo hilabete eta erdian elur gainean jokatutako diren lasterketen inguruan. «Ez nuen espero beste lasterketarik egitea, baina, txapel-dun irten eta gero, otsailaren hasieran, Andaluzian izango

naiz, Sierra Nevada Munduko Txapelketan parte hartzen», aurreratu du Irigoienek. Muroiasek ere Espainiako Kopako lasterketa guztietan lehiatzeko asmoa du. «Hasiera batean, elur gaineko lasterketen kopa guztietan lehiatzeko asmoa daukat. Ondoren, martxoan, Mendi Lasterketetako Kilometro Bertikaleko Espainiako Txapelketan lehiatzea gustatuko litzaidake, Ladrillarren. Eta, apirillean, Lhotseko espedizioan murgilduko naiz buru-belarri». Uribarri, berriz, Belaguan jokatutako lasterketarekin eman zion amaiera elur gaineko proben egutegiari. «Ez daukat asmorik elur gaineko beste lasterketarik korritzeko. Aurtengo denboraldirako beste asmo batzuekin nabil. Lehenik, mendi eskian lehiatuko dut. Panticosan hasiko naiz, eta, ondoren, Bandres-Karoloren omenezkoan eta Altito-Ternuan hartuko dut parte. Mendi lasterketa batzuk ere egingo ditut, eta lehena, maretxoan, Transgrancanarian izango da. Baina ez dut egutegia lasterketaz bete nahi. Aipatutakoak ondo prestatuko ditut».